



"Euskara gara", lau haizetara

Jendetzak bat egin zuen Korrikarekin, Andoainen eta Urnietan, ordu txikitan igaro zen arren / 3-11

KORRIKA

**ANDOAINEN EUSKARA
INDARBERRITZEKO**

AROA



Udala datorren urteetarako euskara indarberritzeko plan berria lantzen ari da eta horretarako zure iritzia, beharrak, proposamenak... ezagutu nahi ditugu.

Bost minutu hartuko dituzu galdetegi hau betetzeko?



andoaINDARRA
euskaraz



ANDOINGO UDALA



Galdetegi osatzen dutenen artean Basteron izango diren bi ikuskizunetarako 2na sarrera bikoitz zozketatuko dira apirilaren 15ean:
"ESANEZIN + SARA AZURZA" musikarien kontzerturako (apirilaren 17an)
"KOLAPSOA" antzezlanerako (maiatzaren 22an)



Egape ikastolako hainbat kide, San Juan kalean, Korrika noiz iritsiko zain. AIURRI

Jon Ander Ubeda URNIETA

Gauerdia igarota, Urnietako eta Hernanialdeko AEK euskaltegietako kideak Iruraino gainan zain ziren, antolatzaileen ibilgailuetako bat hartzeko prest. Gaua hotza zen, etxean goxo egoteko modukoa. Ezin bazterrean utzi, ordea, euskararen aldeko hitzordua: Korrika iristear zen! Urnietar askok bat egin zuen lasterketarekin. Minutu gutxira, lekuko-eramaileak euren postura hurbiltzen hasi ziren. Kuadrillan hurbiltze ari ziren jeltzaleak, Salestarren ikastetxeko aldapan gora, zegokien tokira. Bidean, Magale-Salestarren ikastetxeko ordezkariekin topo egin zuten. Haiek, ordurako, zegokien tokian prest ziren.

Lagun ugari ditu Korrikak Urnietan

Esnelateko LAB sindikatukoak izan ziren lekukoa hartzen lehenak eta, haien atzetik, INER, EAJ-PNV, Magale-Salestarren, Egape Dantza Taldea, Egape ikastola, Urnietako Udala, Zanpatuz, EH Bildu, UKE, Poxta Zahar, Xoxokako auzo elkarte eta Lehengoak enpresa

Udalerrira oinez hurbildu ahal, jende multzoak antzeman zitezkeen bide bazterretan. Tarteetan, nola ez, lekuko eramaileak:

Egape ikastola, Udala, Zanpatuz, EH Bildu, Urnieta Kirol Elkartea... Poxta Zahar gazte kuadrillen izenean talde polita zegoen

Oztaranen. Langarda aldean testigua hartzeko zain ziren Xoxoka Auzo Elkarteko kideak. Eta, aurrerago, Hernani aldetik

hurbildutako kuadrilla bat. Esperimentzia luzatzea erabaki zutela eta, Urnietaraino hurbildu ziren. Metro gutxira, bikote gazte bat zegoen. Haietako bat hernaniarra zen eta, bestea, bizkaitarra, Korrikan propio parte hartzera hurbildu zena.

Zuzeneko emankizunen aroan, Korrika iritsi bitartean, kalean ziren gehien-gehienak eskuko telefonoari begira ziren. Urrunetik zetorren hotsa geroz eta ozenagoa zen: "Ko rri ka, ko rrika! Urnietan ere eus ka raz"... Lehengoak enpresak hartu zuen herriko azken lekukoa. Hernanirantz jarraitu zuen lasterketak, errepidea alderik alde jendez beterik zela. Lagun ugari agurtuz urrundu zen Korrika.



AEK-ko kideak Irurain gainan. AIURRI



Lehengoak Babes Ingeniaritzak hartu zuen Urnietako azken lekukoa. AIURRI



Xoxokako Auzo Elkarte, Langarda aldean. AIURRI



Poxta Zahar Gazte Kuadrillen elkarte, Oztaranen. AIURRI



Gobernu taldeko kideak, alkate txikiekin batera. AIURRI



Urnietako Kirol Elkarte, Zabaletako bidegurutzetik gertu. AIURRI



Urnietako EAJ-PNVko kideak izan ziren lekukoa hartzen lehenetakoak. AIURRI



Magale Salestar ikastetxea, ezin bestela, ikastetxetik metro gutxira. AIURRI



Urnietako EH Bilduko kideak Idiazabal kalean. AIURRI

Goizaldean iritsi zen Korrika Urnietara



KORRIKA

Ordu batzuk igaro ziren Urnietako argazkiak bistaratu arte. Hortxe, lagintxo. Argazki gehiago Aiurri.eus webgunean

ikusgai daude. Korrikari eskainitako tarte berezian argazki-bilduma eta bideo-sorta zabala daude ikusgai.

Tartean, Korrika aurreko ekitaldietakoak eta baita martxoaren 23koak ere. Izan ere, Urnietak egitarau oparoa antolatu du.

Aste honetan bi hitzordu gehiago daude: ardo dastaketa, ostegunean. Eta, Korrika Txikia, ostiral goizean.



Albisteak, hitzorduak, argazki-bildumak, bideoak...

**Atal berezia
Aiurri.eus
webgunean**

Okm:
batzen gaituen
distantzia

Egin zaitez aiurrikide

**AIURRI
KIDE**



TXOKOTIK ZABALERA

UNAI GAZTELUMENDI ARANDIA MARRAZKILARIA



AIURRI

Kultur hitzordu ugari, Urnietan

Lurdes Iriondo Udal Musika eskolako ikasleak, Egape Dantza Taldea, Kantazaun taldea... Korrikarekin bat egin duten eragileak ez dira gutxi izan Urnietan.

Hala, Korrika iritsi bitarte, egitarau oparoa antolatu du Korrika Batzordeak. Ekitaldi horien guztien argazki-bildumak ikusgai daude Aiurri.eus gunean.



Kantazaun taldeko kideek saioa egin zuten astelehen arratsaldean. Behean, Egape Dantza Taldekoak. AIURRI



Bertso-pilota saioa

Astelehen arratsaldean Bertso-pelota saioaren edizio berria egin zuten Urnietan. Bikoteka, pilotan aritu ziren eskuz binaka. Julen Alberdi eta Imanol Odriozola, batetik, eta Iker Urmeneta eta Mikel Aranguren, bestetik. Partida eta saioa osatzeko, bi bertsolari: Andoni Rekondo hernaniarra eta Andoni Mujika "Anatx" urnietarra.



AIURRI

URNIETA
MARTXOAK 26

OSTEGUNA

19:00 Matxo. Korrika ardoen dastaketa, Biba ardoak adituaren eskutik.

MARTXOAK 27

OSTIRALA

10:00 Kandela tabernatik abiatuta, Korrika Txikia.



Astelehen iluntzean peto-banaketa egin zuten Zumea plazan. Lekukoa eraman zuten kide guztiei peto bana eman zieten. AIURRI

Korrika eguna, Andoainen

Goizean hasi zen Andoain Korrikan murgiltzen, batzordeak antolatu zituen Korrika Gaztea eta Txikiaren bitartez. Arratsaldean, petoak banatu eta herri afaria egin zuten Zumea plazan. Euskararen aldeko oihuak eta adierazpenak nagusitu ziren egun osoan



Korrika Txikia amaitu aurretik adierazpena irakurri zuten Goikoplazan. AIURRI



Korrika Txikiaren amaiera, astelehen arratsaldean, udalerrian barrena korrika aritu ostean. AIURRI



Leizaran institutuko kideak, Korrika Gaztearen buru, Kale Nagusian. AIURRI



Errespetatu Andoain, Hurria-Sahara eta Oroituz Andoainen elkarteak, elkarrekin, Etxeberrietan. AIURRI



Andoaingo emakumeek Kale Berrian hartu zuten lekukoa, aspaldiko ohiturari jarraipena emanez. AIURRI



Mintzalagunak, Plaza Moretik gertu, lekukoa hartzeko zain. AIURRI



Axeriak, Zumea kalean. AIURRI



Elkarte gastronomikoetako kideak, Sorabillan. AIURRI



Kirolariak izan ziren Andoaingo lekukoa hartzen lehenetakoak. AIURRI

→ Egunero, milaka pertsonak lan egiten dugu Euskadiko ikasle guztiek kalitatezko hezkuntza jaso dezaten eta konfiantzaz haz daitezen.



**GURE HEZKUNTZA,
GURE ETORKIZUNA.** **HEMEN
ORAIN
ZUREKIN**

#EUSKADIBERRIA

EUSKO JAURLARITZA

HEZKUNTZA SAILA



GOBIERNO VASCO

DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN



SEGA San Esteban Gazte Asanbladaren lekukoa. KORRIKA

"Euskara gara", ahoan; lekukoa, eskuz esku

Gizarte eragileen gehiengoak eta ehunka herritarrek harrera beroa egin zioten Korrikari, Andoainen barrena igaro zenean. Herrikideen hauspoarekin, bizi-bizi egin zuen ibilbidea Sorabillatik hasi eta Leizotzeraino. Korrikak Urnietako bidea hartu zuen gero

Xabier Lasa ANDOAIN

Egun osoko ospakizunen une goren gauek iritsi zen Andoainera, Korrika Adunan barrena gure lurretan murgildu zenean. Balastrain industriegunean hartu zuten lekukoa andoaindarrek. Herrigunetik urrun zegoelako edo, kirol taldeak izan ziren lehenak: Leizaran eskubaloia, Leitz, Zumetarra Kirol Taldea, Euskalduna Andoaindarra Futbol Taldea, Gazteleku Pilota Eskola, Euskalduna Mendigoizale Taldea, Ganbara Saskibaloia.... lehen metroak taldean egin zituzten. Hurrengo tartea ere taldean eraman zuten. Elkarre gastronomikoe, hain zuzen:

Kotoi, Hogar Extremeño, Ontza, Zumetarra eta Peña Santakruz elkartea. Segidan, hurrenez hurren, Andoaingo gizarte eragile ugari bat egin zuen Korrikarekin: Aita Larramendi ikastolako ikasleak, Ezker abertzalea, San Estebago Gazte Asanblada (SEGA), Hurria-Sahara, Oroituz, Errespetatu Andoain plataforma, Axeri Dantza, Aiurri, Manuel Larramendi Kultur Bazkuna, Andoaingo emakumeak, Lebiton konpartsa, Mintzalagunak, Ondarreta Herri Eskola-Leizaran institutua, Aita Larramendi ikastola, Aita Larramendi Ikastolako irakasleak, Andoaingo Mugimendu Sozialista, El-

karrekin Podemos, EAJ-PNV, Batzokia, EH Bildu, La Salle Berrozpe ikastetxeko langileak, Andoaingo Udala, La Salle Berrozpeko ikasle eta familiak, Zuena elkartea, Udal langileak, Berria egunkariako langileak, Martin Ugalde kultur parkea, Palestinaren aldeko Andoaingo BDS taldea, Andoaingo Mugimendu Feminista, TKE enpresako langileak, Pixel enpresa eta Arrospede galdaragintza.

Lekuko-eramaileen atzetik dozenaka herrikide zetozen, ordu txikietan izan arren. Haien artean azpimarragarria zen haur eta gazte kopuru handia. Beste behin ere, Korrikarekin bat egin zuten andoaindar ugariak.



Andoaingo BDZ taldearen lekukoa. KORRIKA



Andoaingo Mugimendu Feministaren lekukoa. KORRIKA



Andoaingo Udalaren lekukoa. KORRIKA



EH Bilduren lekukoa. KORRIKA



EAJ-PNVren lekukoa. KORRIKA



Elkarrekin Podemosen lekukoa. KORRIKA



Gazte Koordinakunde Sozialistaren lekukoa. KORRIKA



Udal langileen lekukoa. KORRIKA



Zuena elkarteko lekukoa. KORRIKA



Lebiton konpartsaren lekukoa. KORRIKA



Aiurri eta Manuel Kultur Larramendi Bazkunaren lekukoa. KORRIKA



Kirol elkarten lekukoa. KORRIKA



Hogar Extremeñoren lekukoa. KORRIKA

Korrikaren altxorretako bat, Andoaingo Udal Liburutegian

Martin Ugalde idazle andoaindarra omendu zuen 1993ko Korrikak. Berak eraman zuen lekukoa azken kilometroan, Bilboko kaleetan. Antolatzaileek eskultura bikaina eman zioten, oroigarri gisa, eta egun Andoaingo Udal Liburutegian dago ikusgai

Xabier Lasa ANDOAIN

Antolatzaileek Ugalderi egin zioten merezimenduzko omenaldian, Berriatuko Mikel Lertxundi eskultoreak egindako eskultura bikaina eman zioten, oroigarri gisa. Lekukoa elkarrekin daramaten bi esku sinbolizatzen ditu eskulturak. Materialari dagokionez, Markinako harri-beltza deituriko kareharria eta egurra uztartzen ditu eskulturak. Korrikaren 8. edizioa martxoaren 26an Iruñean hasi eta apirilaren 4an Bilbon amaitu zen, eta Martin Ugalde kazetari eta idazle andoaindarra izan protagonista nagusia urte hartan, esan bezala. Berari eskaini zioten Bilbon lekukoa eskuetan eramateko ohorea, azken kilometroan. “Denok maite dugu gure herria euskaraz” leloa hartu zuen Korrika 8. edizioak eta Tapia eta Leturiak sortutako “Aide Korrika” abestiaren doinupean aritu ziren tipi-tapa tipi-tapa korrika milaka eta milaka euskaltzale Iruñetik Bilbora bitarte.

Ugalde eta Udal Liburutegia

2010ean, Andoaingo Udalak Ugalde Martinez familiak dohaintzan emandako funtsa hartu zuen beregain, eta, baita ere, besteak beste, makina bat liburu, dokumentu eta objektu historikoez gain, liburutegian ikusgai dagoen eskultura ere Orduko hartan, udalbatzak bi erabaki hartu zituen, Martin Ugalderen izena



Mikel Lertxundik egindako eskultura, Udal Liburutegian. AIURRI

jartzea etorkizuneko udal liburutegiari, eta, liburutegi horretan aparteko lekua ematea haren funtsari.

Zumalabek egindako mezua

Joxemi Zumalabe Goenaga kazetari eta euskalgintzako eragile handia izan zen lekukoak Euskal Herriko errepideetan barrena gordeta eraman zuen

mezuaren egilea, eta amaieran, Martin Ugaldek Bilbon irakurri zuena. Zumalabe egun batzuk lehengo, urtarrilaren 12an hil zen, eta familiari ere omenaldi hunkigarria egin zioten edizio hartan. Hona mezuaren edukia: “Hemen, euskaldun ez diren denak ez dira etorkinak, euskara galdu duen herriaren zati handi bat badago, deseuskal-



Zumalabe eta Ugalde, elkarrekin. ARGIA FOTOTEKA



Martin Ugalde bilobarekin, Bilbon. MARISOL RAMIREZ, EUSKALDUNON EGUNKARIA

dunduak dira gure artean gehien- go, eta, nolabait, horrek ere kultura sortzen du.

Euskal Herriko gizartea esparru desberdinek osatua dago -ez bi komunitatek-: etorkinak, bertako ez euskaldunak, euskaldunak, eta giza esparru horiek gurutzatzen dituzte beste batzuk, hala nola, txiroak, aberatsak, nekazariak, erruralak, urbanoak... Denok Euskal Herria osatzen badugu gaur egun, denek esan dezakete berena ere badutela euskal kultura. Baina hor errealitate mugatzailea, nazio-

tasuna galtzen ari den herriarena da. Nazio izana zapaldua duen herriarena. Orduan, desnazionalizazioaren aurrean guk bultzatu behar dugun kulturak du garrantzia, euskararen inguruan sortutako kultura litza-teke, hau da, nazio izateko behar duen kultura. Kulturak ere bai baitu tresna izaera, gizarte batek bere egituraketa kontzienterako erabiltzen duen tresna. Eta alde horretatik geure apustua euskal proiektu nazionala bideratuko lukeen proiektu kulturaletik dator”.



Irati Manzisidor eta Iratitz Zuluaga, Korrika eguneko arduradunak. AEK

Jaia piztuko da Bilbon, 24. Korrikari amaiera emateko

Egun osoko ospakizuna antolatu du AEK-k, Bilbon. Bertara joateko deia egin diete euskal herritarrei

Aiurri komunitatea

AEK

Bilboko udaletxean bukatuko da Korrikaren 24. edizioa, igande honetan, 2750 kilometroko eta 3436 lekuko-hartzeko ibilbidea osatu ostean. Bizkaiko hiriburu osoa zeharkatu ondoren, Udaletxeko zubitik sartuko da karabana koloretsua. Amaiera-ekitaldia bertan izanen da, eta, segidan, festarako tenorea helduko zaie bertaratuakoei.

Igandeko bukaera-egun handia aurkezteko, KORRIKAREN ordezkariak prentsa-agerraldia egin dute aste honetan. Deialdia egin dute Euskal Herriko txoko guztietako jendea bertara dadin, eta, era berean, ustea adierazi dute hitzordu ederra izanen dela Bilboko herritarrentzat nahiz eragileentzat, euskararen aldeko lanean segitzeko akuilua.

Amaiera-ekitaldia Ernesto Erkoreka plazan (Udaletxean)

ospatuko da. Lekukoa 12:30era-ko iritsiko dela aurreikusita dago, AEKko kideen eskutik eta azken lekuko-hartze nazionalak egin ostean. AEKko kideek mezu-egilearekin batera egingo dituzte euskararen aldeko ekimenaren azken urratsak Venezuelaz plazatik. Une horretan ezagutuko dugu, beraz, eskuz esku, kilometroz kilometro, Atharratzetik Bilbora joan den lekukoaren barruko mezu sekretuaren egilea nor den, eta, noski, baita mezuaren beraren edukia ere Udaletxera iritsita-koan.

Egun osoko festa, igandean, Bilboko kaleetan

La Basu, Añube, Bele eta Mixe-rabliak kontzertuak eskainiko dituzte hainbat gunetan eta hainbat ekintza osagarri iragarri dituzte: azoka, herri-kirolak eta herri-bazkaria.

Galdetegia martxan, euskara ardatz hartuta

Andoingo euskara biziberritzeko plan berriak AROA izena du eta Udalak Elhuyarrekin lankidetzan abiarazi du. Egunotan martxan jarri dute on-line galdetegia eta andoaindarrei parte hartzeko gonbita luzatu diete

Jon Ander Ubeda ANDOAIN

Euskara Sustatzeko Ekintza Plana (2020-2025) amaitu berritan, aro berriari ekin nahi dio Andoingo Udalak. Plan berria abiarazteko Eusko Jaurlaritzak sorturiko marko estrategikoa jarraitzeko asmoa dute, AROA deiturikoa. Eta zein da planaren helburua? Agerraldian azaldu zuten: "planak helburu du XXI. mendearen joera globalen aurrean, euskararen gutxiagotasun egoerari aurre egitea, eta indar-berritze prozesuak etenik gabe jarraitzea. Euskarak bizirik aurrera egin dezan, ezinbestekoa izango da hiztun aktiboak lortu eta ugaritzea. Euskaraz eroso aritzeko gune pribilegiatuak irabaziko dira horrela: etxea, kalea, eskola, aisialdia eta kirola, lan esparrua, osasun eta zaintza esparrua, ingurune digitala... Euskararen ezagutza kopuruz gero eta handiagoa den garai honetan, euskara erabiltzen dugun hiztun kopurua igotzea da erronka, eta horrekin batera, komunitatea handitzea eta sendotzea".

Andoingo Udalak Elhuyar enpresa izango du bidelagun datozen hilabeteotan plan horri forma emateko. Egoera hobeto ezagutzeko galdetegia zabaldu zuten herritarren artean, aurre-



Agerraldia egin zuten asteazken eguerdian. AIURRI

ko astean. Galdetegi anonimoa eta erraza da, 5 minutu eskas-tan egiten dena. Euskara Lantailak ahalik eta erantzun gehien eskuratu nahi du, erantzun kopuru handiak emango baitu herriaren irudi erreala-goa.

Ekintza Plana

Euskara biziberritzeko hainbat helburu eta jardura esparru zehazten dira: euskararen jabe-kuntza (familia bidezko transmisioa, irakaskuntza, helduen euskalduntze-alfabetatze eta etorri berriak eta kulturarteko-tasuna), euskararen erabilera

(administrazioa, arlo sozio-ekonomikoa eta aisia eta kirola), euskararen elikadura (kultur-gintza, euskararen corpusa eta komunikazioa) eta zehar-lerroak (sentiberatzea, motibazioa eta aktibazioa eta kanpo proiektzioa).

Jarraian, inkestan parte hartzeko esteka:



Aiurri eskuragarri:
Etxez ebeko harpidetza-sistema. Andoainen urte osoko harpidetza-saria 55 eurokoa da. Ale batzuk eskuragarri kiosko eta merkatalguneetan.

Egoitza Orokorra:
Arantzibia plaza, 4/5-behea. 20140, Andoain.
Tel.: 943 300 732.
andoain@aiurri.eus
www.aiurri.eus

Zuzendaria: Jon Ander Ubeda.

Erredaktoreak: Xabier Lasa, Lide Ruiz Telleria.

Maketatzailea: Maddi Trubuelo.

Kudeaketa, harpidetza:
Garbiñe Ugarte Mendia.
idazkaritza@aiurri.eus

Publizitatea:
Fer Irazu.
publizitatea@aiurri.eus

Banatzaleak:
Rocio Arias (Andoain),
Axun Jauregi, Jeray Gonzalez (Urnietak).

Diseinua: Golena / TOKIKOM.

Zorion agurrak, merkatu txikia:
diseinua@aiurri.eus | www.aiurri.eus.
Whatsapp-a: 619 163 537.

Lege Gordailua: SS-1078/04.

ISSN: 1698-4870.

Tirada: 4.000 ale.

Inprimategia: Zeroa Multimedia.

EKOIZLEA:



ALIATUAK:



BI UDALERRIEN BABESAREKIN ARGITARATZEN DA:



ANDOINGO UDALA



Urnietako UDALA

DIRUZ LAGUNDUTAKO ARGITALPENA:



Gipuzkoako Foru Aldundia

Hikuntza Berdintasunerako Zuzendaritza



EUSKO JAURLARITZA GOBERNU VASCO

KULTURA ETA HIZKUNTZA POLITIKA SAILA

BABESLEAK: Aiurriko harpidedunak ezinbestekoak dira.





Oumaima Hajjajik, Fatima Darkaoni, Soad Yerrok eta Laila Malok, Kale Nagusian. AIURRI

Amma, emakume musulmanak elkartu nahi dituen elkarte

Oumaima Hajjajik, Laila Malok, Soad Yerrok, Fatima Darkaonik eta beste zenbait herritarrek AMMA Andoingo Emakume Musulmanen Kultur Elkarte sortu berri dute. Lauek ere, solasaldi goxoa partekatu dute Aiurriarekin

Xabier Lasa ANDOAIN

“Andoingo emakume musulmanak elkartuko dituen eta beren ahotza zabalduko duen elkarte sortu dugu”, adierazi du Oumaima Hajjajik. “Emakume musulman asko bizi gara

herrian, baina askok ez dugu elkarren berri; nork bere bizi-modua egiten du, familiaren martxara lotuta askotan, eta sozializatzeko aukera askorik gabe. Horrexegatik, elkar eza-gutzeko, elkarri laguntzeko,

elkarri babesa emateko, nortzuk garen herrikideei azaltzeko... tresna izan nahi du elkarteak, besteak beste”.

Jada Andoainen bizitzen urte mordoska daramaten emakume musulmanentzat ez ezik, azken

urtetan heltzen ari direnentzat ere erreferentzia izan dadin elkarte, nahi dute.

Andoainera 2025ean bizitzera iritsi ziren munduko 35 herrialdeetako 246 bizilagunei harrera-egiteko ekitaldia antolatu zuen Udalak udaletxean, joan den urtarrilaren 18an. Ekitaldi hartan zehaztu zenez, etorri berri horietatik, ehundik gora dira jatorriz erlijio musulmanekoak (Maroko, Aljeria...) direnak. Alde horretatik, etorri berri horiei harrera egiteko asmoa ere badu elkarteak, Hajjajiren hitzetan. “Guri ere egokitu izan zaigu jaiotetxea atzean utzi eta arrotzak zaizkigun hizkuntzak, kultura, ohiturak... dauzkan gizarte batean bizitzen jarri beharra, bizibidea ateratzeko. Traumatikoa gerta daiteke bi- zipen hori, dena bihurtzen baitzaizu arazo, hasieran. Bertakoen hizkuntza (edo bi hizkuntzak Euskal Herriaren kasuan), ez duzu ezagutzen, eta hortik heltzen zaizu lehenbiziko oztopo galanta; bertakoekin komunikatzea galarazten dizu, horrek dakarren arriskuarekin, bakar-tasun pertsonalean eta gizarte bazterkerian erortzekoa alegia”.

Babes animiko eta psikologiko-soziala eskaintzeaz gain, gizartean mugitzeko beharrezkoak diren zenbait baliabide (hizkuntzaren ezagutza, gestio administratiboak, herrikideekin edo era guztietako elkarteekin harremanak erraztu...) eskura jartzen saiatuko dira elkartetik.

Ahots propioa edukitzeko elkarte

Emakume musulmanen topagunea sortzeaz gainera, herriko kultur edo gizarte dinamiketan integratu eta bere ekarpena egin nahi du Andoingo Emakume Musulmanen Kultur Elkarteak. “Ahots propioa nahi dugu eduki, entzunak izan gaitzen Andoingo giza komunitatean. Izan ere, askotan hartzen dira ahotan emakume musulmanak, baina gutxitan ematen zaie hitza nahi duten moduan mintza daitezten. Guregatik dau-den aurrezjuzgu edo ezjakintasunak uxatzen saiatuko gara”, zehaztu du Hajjajik. “Emakume musulmanek komunitate handi samarra osatzen dugu herrian; komunitate horretako kide gehienak ordezkatu nahi genituzke, geuk ere iritzia badaukagulako, ekintzaileak garelako

eta geure ekarpena egin nahi diogulako herriari”.

“Ongi Etorri Eskolara” egitasmoarekin inplikatur

Oumaima Hajjajik, Laila Malok, Soad Yerrok eta Fatima Darkaonik ahal duten guztietan hartzen dute parte kulturarte-kotasuna bultzatu ohi duen “Ongi Etorri Eskolara” egitasmoak antolatzen dituen ekimenetan. “Andoainen bizi diren kulturen arteko topaketa sustatzea izaten dute helburu ekimenek, eta garrantzitsua iruditzen zaigu horietan geure ekarpena egitea. Esate baterako, oso gogoko dugu herriko elkarte gastronomikoe-tan tarteka ospatu ohi den “Su-artean Gure-artean” hitzordua. Herrialde desberdinetako gastronomia ezagutu eta dastatzearen eskutik, familia-giroko jaia ospatzen da. Horietan, elkartearen atarian uzten dira gutako bakoitzak eduki ditzazkeen “etiketak” (jatorria, azal-kolorea, hizkuntza, kultura, erlijioa...). Denak gizaki gisa berdintzen gara elkarte horietan, eta bizi-kidetasun aberatsa sortzen da, modurik naturalenean”.

Uste okerre aurre egiteko gogoa

Munduan arrazakeriaren eta xenofobiaren gorakada nabaria dela kontuan harturik, Andoainen zer nolako harrera bizi izan duten galdetuta, herri abegikor batekin egin dutela topo aitortu du Darkaonik. “Jendeak errespeta-arekin hartu gaitu orohar, eroso sentiarazten gaitu; ikas-tetxeetan ere, oso ondo hartu dituzte gure haurrak. Leku guztietan egon ohi den salbuespen edo egoera puntual mingarriren bat-edo kenduta, ez daukagu ezer kezatzekorik, kontrara. Geure ingurukoek galdetzen digutenean ea Andoain leku bizigarria ote den, baietz erantzuten diegu zalantzarik gabe. Etxebizitzaren errentak garesti egon arren, normalki, traba ekonomiko horren gainetik jartzen da bizileku hartuko duzun lurralde hori ez izatea problematikoa arrazismoaren ikuspegitik”.

Emakume musulmanen inguruan ezjakintasuna nahiko nabaria dela eta eremu horretan lanketa egiteko ere jaio dela Andoingo Emakume Musulmanen Kultur Elkarte, adierazi du laukoteak. “Maiz begiratue-

tan-eta, geure janzkeragatik, hizkuntzagatik, ohiturengatik... jakinmina sumatzen dugu. Jende askok gogoz galdetuko liguke hau eta beste, baina ez dira auzartzen. Behin konfiantza hartzen hasten direnean gurekin, aitor-tzen dizute aurrez zein oker juzgatu gaituzten, ezjakintasunetik; esaten dizute “aizu, zu ezagutzen zaitugu, eta badakigu zuri ez dizutela inposatu buruko-zapia. Iranen, Afganistanen emakumeek jasaten duten egoera ere agudo ateratzen dute, baina ulertu behar da herritar guztiak daudela zapalduta herrialde horietan, ez emakumeak bakarrik. Izan ere, jendeak, maiz, kultura eta erlijioa, pentsamendu eta jokabide atzerakoiekin nahasten ditu”, adierazi du Soad Yerrouk.

Hajjak erantsi duenez, “Itxiak eta zorigaiztokoak garela izatez, inposatuta jantzen dugula beloa eta horrek geure nortasuna eta askatasuna zapaltzen digula..., eta antzeko uste okerrak nahiko



Emakume musulmanak, Ontza elkartean 'Su-Artean Gure-Artean' ekimenean. AIURRI

zabalduak daude, eta errealitate hori irauli nahi genuke ahal dugun neurrian. Iritzia eman aurretik gu ezagutzea izango litzateke egokiena, eta alde horretatik, edonori gonbidapena egiten diogu gugana hurbil da-

din eta nahi duena galde dezan. Beti ere, errespetu-giroa nagusituz gero, eta solaskidearen pentsamendu-askatasuna balioetsiz gero, seguru hizketaldi polit eta aberasgarriak sor litezkeela”.



Amaierako errezua egin zuten ostiral goizean, Arrate pilotalekuan. AIURRI

Ramadamaren amaiera, Arraten

“Eid Mubarak”, Ramadanaren amaierako ospakizuna egin zuten aurreko ostiralean Arrate pilotalekuan. Aurtengoa jendaurrekua izan zen eta, beraz, bertan parte hartzeko aukera herrikide guztiei zabaltu zizkieten. Keinu hori egin izana

eskertu zien Haizea Barandiaran alkate-ordeak. Errezurako, goizean goizetik, Aljeria, Maroko, Mauritania, Pakistan, Ghana, Senegal, Angola eta Sahara herrialdeetako jatorria duten pertsonak elkartu ziren.

Dozenaka ziren, gehienak Andoaingoak, baina baita inguruko herrietakoak ere. Zehazki, Urnieta, Lasarte-Oria, Aduna eta Amasa-Villabonakoak. Ekitaldia lurralde haietako janaria eta infusioak dastatuz amaitu zen.



Pankarta eskegi zuten udaletxeko balkoian. AIURRI

Arrazakeriaren aurkako mezua

Ongi Etorri Eskolako kideak, Udal ordezkariak eta hainbat herritar elkartu ziren Goikoplazan, martxoaren 20an, Arrazakeriaren aurkako eguneko ekitaldian parte hartzeko. Herriko eragileekin adosturiko adierazpena irakurri zuten, lehenik. Eta, segidan, “Aizu! Arrazakeriarik ez!” pankarta eskegi zuten udaletxeko balkoitik. Ozen adierazi zuten aldarri nagusia: “gure ahotsa altzatzen dugu arraza-diskriminazio mota oro salatu eta irmoki gaitzesteko, baita giza eskubideen eta bizikidetzaren aurka egiten duten diskurtso, jarrera eta praktika xenofobo eta arrazistak gaitzesteko ere”. Gerora begira, jokabide aktiboa hartzeko konpromisoa berretsi zuten: “Bizikidetzaren defentsan paper aktiboa betetzeko konpromisoa hartzen dugu, elkarrekin Andoain hobe, bidezkoa, inklusiboa eta arrazakeriarik gabekorantz aurrera eginez”.



Adierazpena irakurri zuten bi herrikidek. AIURRI



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA ETA HIZKUNTZA
POLITIKA SAILA



UKE

Zail dago play-offa

Urnieta Artola Harategia gizonen eskubaloiko seniorren porrota Pulporen kantxara egindako bisitan (28-26), ligako azken-aurreko jardunaldian. Oso zaila da, ondorioz, play-offera sailkatzea. Gauzak horrela, salbazio matematikoa lortu dute eta beste denboraldi batez Lurraldeko 1. mailan jokatu dute.



UDALA

Zelai berria eraikitze lanak

Urnietako futbol zelaia berritzeko baldintza-agiriak onartu dituzte eta, gauzak horrela, zelai berria eraikitze lanen hasiera gertuago dago. Udalak zabalduko du hurrengo arabera, lanak maiatzaren amaieran hasita aurreikusten dute. Eta, gauzak ondo, zelai berria datorren denboraldirako prest egongo da.

Goi mailako txirrindularitza, gertu

Larunbatean jokatu da Aiztondo Klasika Txomin Perurena-Patxi Alkorta Memorialaren XXI. edizioa. Afizionatu mailako proba izango da, eta aurreko ere Espainiako Koparako baliagarria izango da. Antolakuntzak jakinarazi duenez, 175 txirrindularik hartuko dute parte, 25 taldetan banatuta; talde bakoitzak zazpi kide izango ditu. Eskualdeko talde nagusiak gonbidatuta daude.

139 kilometroko ibilbidea izango du lasterketak, eta Aiztondo bailarako herri guztietatik igaroko da. Irteera Alkizan izango da, 10:00etan; helmuga, berriz, Larraulen, 13:30 inguruan. Hasiera neutralizatua Alkizan egingo dute, Asteasuraino. Ondoren, bailarako ohiko itzulia –Asteasu, Zizurkil, Aduna, Villabona, Zizurkil eta, berriz, Asteasu– hiru aldiz osatuko dute.

Etorkizuneko profesionalak ikusteko aukera paregabea izango da Andoaindik eta Urnietatik kanpo.

Mendi Martxa igandean, Otieta barrena

Igandean ospatuko da Aizkardi Mendi Taldearen mendi martxa entzutetsua. Izen-ematea zabalik egongo da martxoaren 27ra arte, zirkuitua.com gunean eta, bi ibilbide ezberdin daude aukeran: 24 kilometroko ibilbide motza eta 46 kilometroko luzea. Bi ibilbideak Amasa-Villabonatik abiatu eta, lehen kilometroetan, Otieta barrena igaroko dira.



ANDOAINGO

Garaipena, Lizarran

Andoingo Txirrindulari Eskolako Xabat Martinek garaipena lortu zuen Lizarran. Iratxe aurrealdean igaro eta erreleboka iritsi zen lasterkari multzo txikia. Lasterketa esprintean erabaki zen eta, azkarrena, Martin izan zen. Honako taldekide hauek ere parte hartu zuten: Liher Albizu, Urko Zelaia, Ametz Arruti, Dario Gomez, Unax Guisado, Ugaitz Tejeria eta Aner Barrenetxea.



AIURRI

“Golen Jauna”, erakusketa

Oviedoko Unibertsitateko Eraikin Historikoko klaustro altuan jarri dute Isidro Langararen erakusketa, eta apirilaren 1era bitarte egongo da zabalik. Antolatzaileek adierazi dutenez “Espainiako ligan garai guztietako gogor onenaren biografiari buruzko objektuen bilduma paregabea erakusten du erakusketak”.

MARTXOAK 28
LARUNBATA · 16:30
GALARRETA
JAI ALAI

SARRERAK

berria
ERREMONTA TXAPELKETA 2026

1. PARTIDA (IKUSKIZUN PARTIDA)
MARTIXPE · GOIKOETXEA VI VS
AIESTARAN VII · UGARTE II

2. PARTIDA (BERRIA ERREMONTA TXAPELKETA)
SEGUROLA · ALDABE VS
JABALERA · AIESTARAN VI

3. PARTIDA (BERRIA ERREMONTA TXAPELKETA)
ARLUZIAGA · JUANENEA VS
SUSPERREGI · LARRAÑAGA

Erredakzioa ESKUALDEA

Martxoaren 24an, Beterri Saretuz sarea La Salle Berrozpera gerturatu zen, administrazio eta finantza zikloko lehen mailako ikasleei eskualdeko eragileen elkarlanean sarea bertatik bertara ezagutarazteko. Saioa Aztiker eta Hiruki Larroxa kooperatibetako Susana eta Eñautek gidatu zuten, sareko kide gisa, eta helburu nagusia izan zen gazteei tokiko errealitate ekonomiko eta sozial eraldatzailea gerturatzea Enplegarritasunerako ibilbide pertsonala gaia- ren barruan.

Beterri Saretuz-en aurkezpena

Saioaren lehen zatian, Beterri Saretuz zer den azaldu zen: eskualdeko enpresa, kooperatiba eta askotariko eragileek osatutako elkarlan-sarea, tokiko garapen ekonomiko eta soziala ikuspegi eraldatzailetik sustatzeko sortua.

Azaldu zen zer egiten duen sareak egunerokoan: kideen arteko harremanak eta sinergiak sustatu, proiektu bateratuak martxan jarri, lurraldeko beharrei erantzuten dieten ekimenak bultzatu eta Ekonomia Sozial Eraldatzailea ardatz duten praktikak indartu.

Halaber, etorkizunari begirako helburuak partekatu ziren: lurraldean errotutako jarduera ekonomikoa sendotzea, lan duina eta kalitatezkoa sustatzea, eta elkarlanean oinarritutako garapen eredua indartzea, pertsonak eta komunitatea erdigunean jarritz.

Sarea: kolektiboan pentsatuz

Bigarren zatian, sarearen izaera kolektiboa azpimarratu zen. Beterri Saretuz osatzen duten eragileak aurkeztu ziren: sektore ezberdinetako enpresak eta kooperatibak (industria, zerbitzuak, hezkuntza, zaintza, teknologia, komunikazioa...), tamaina eta jardura desberdinetakoak, baina balio partekatuetan oinarrituak.

Ikasleek ezagutu ahal izan zuten zein lan mota egiten diren sareko kideetan, zer profil profesional behar diren eta zein aukera sor daitezkeen etorkizunean bertan lan egiteko edo proiektu berriak sustatzeko. Lurraldean bertan jarduteak duen garrantzia azpimarratu zen, tokiko ekonomiaren eta



Aztiker eta Hiruki Larroxo Susana eta Eñautek Beterri Saretuz sarea aurkeztu zien La Salleko administrazio eta finantza zikloko ikasleei. IDOIA TELLERIA MARITXALAR

“La Salle Berrozpeko ikasleek Beterri Saretuz gertutik ezagutzeko aukera izan dute”

Aztiker eta Hiruki Larroxa kooperatibako Susana Martinezek eta Eñaut Retegik Beterri Saretuz eskualdeko eragileen elkarlanean sarea aurkeztu die La Salleko administrazio eta finantza goi-mailako zikloko ikasleei

komunitatearen indartzean duen eragina nabarmenduz.

Ekonomia Sozial Eraldatzailea: praktika eta hezkuntza

Azkenik, Ekonomia Sozial Eraldatzailea zer den azaldu

zen, modu ulergarri eta praktikoa: irabazi asmorik gabeko edo irabaziak berrinbertitzen dituzten egiturak, erabakiak modu demokratikoan hartzen dituzten erakundeak, eta jardura ekonomikoa gi-

zartearen zerbitzura jartzen duten proiektuak.

Kontzeptua ez zen soilik teorikoki azaldu; sareko kideen eguneroko praktiketan nola gauzatzen den partekatu zen: gobernantza parte-hartzailea,

lan baldintza duinak, genero ikuspegia, ingurumenarekiko konpromisoa eta komunitatearekiko lotura estua.

Era berean, hezkuntzarako prestatutako gidak eta baliabide pedagogikoak aurkeztu ziren, ikastetxeetan Ekonomia Sozial Eraldatzailea lantzeko tresna gisa. Helburua da gazteek bestelako eredu ekonomikoak ezagutzea, ikuspegi kritikoa garatzea eta etorkizunean eragile aktibo izatea.

Saioa giro parte-hartzailean garatu zen, eta ikasleek galderak eta hausnarketak egiteko aukera izan zuten. Beterri Saretuz-etik balorazio oso positiboa egin dute esperientziaren inguruan, hezkuntza komunitatearekin elkarlana estrategikotzat jotzen baitute: “Gazteek gure lurraldeko errealitatea eta hemen eraikitzen ari garen alternatibak ezagutzea funtsezkoa da etorkizun kolektibo sendo bat eraikitzeko”.

Ekimen hau Beterri Saretuz-ek lurraldean saretzea, ezagutza partekatzea eta belaunaldi berriekin zubiak eraikitzea helburu duten jardueren baitan kokatzen da, tokiko garapen eredu bidezkoago eta iraunkorrago baten alde.

AGENDA

ASTEARTE EGUERDIAN BAINO LEHEN IGORRI HITZORDUAK. Tel.: 943 300 732 / andoain@aiurri.eus

ORDU ALDAKETA

ANDOAIN, URNIETA Aldaketa
Udako ordutegia martxoaren 29an:
02:00tan 03:00ak izango dira.
Martxoaren 28tik 29ra.

ERAKUSKETA

ANDOAIN "Orratz-Begia"
1936ko kolpe militarren aurkako
erresistentzian ebakutatutako haurren
ondarea biltzen da erakusketan.
Irekiera: Bastero Kulturgunea.
Martxoak 27, ostirala. 18:00.

MUSIKA

ANDOAIN Filhos de Norris
Bossa eta funk-a Sebastian eta
Nicolas Bianchi anaien eskutik.
19:30, Bastero Kulturgunea.
Martxoak 27, ostirala.

DOKUMENTALA

ANDOAIN Haurrak erbestean
36ko Gerraren ondorioz erbestera
ihes egin behar izan zuten andoaindar
batzuen testigantzak jasotzen dira.
18:00, Bastero Kulturgunea.
Apirilak 14, asteartea.

ANTZERKIA

URNIETA Bilintx
Moko, Indalecio Bizkarrondo *Bilintx*.
17:30, Sarobe.
Apirilak 19, igandea.



Egape Dantza Taldeak ospakizun berezia du udaberrian. UDALA

URNIETA Urnieta Erromerian prestatzeko lehen entsegua

XX. Urnieta Erromerian ospatuko dute maiatzaren 23an. Herritarrei bost
dantzetan parte hartzeko gonbita egin die Egape Dantza Taldeak.
10:00-12:00, Egape ikastola. Martxoak 28, larunbata.



Maskaradun antzerkia, igande honetan Bastero Kulturgunean. AIURRI

ANDOAIN "Kimu", maskaradun antzerkia

Marie de Jongh konpainiaren berriena.
12:00, Bastero. Martxoak 29, igandea.



ZINEMA



ANDOAIN
BASTERO
Cumbres borrascosas
Larunbata, 28.
19:30.
Igandea, 29. 19:30.
Astelehena, 30.
17:00, 19:30.

Hoppers
Martxoak 29. 17:00.
El ultimo vikingo
Larunbata, 4. 19:30.
Igandea, 5. 19:30.
Astelehena, 6.
17:00, 19:30.
Asteartea, 7.
17:00, 19:30.



SINOPSISIA

Cumbres borrascosas
Zuzendariak: Emerald Fennell. **Aktoreak:** Margot Robbie, Jacob Elordi, Hong Chau. **Hizkuntza:** Gaztelaniaz. **Generoa:** Drama. **Iraupena:** 135 m.

Elordi ikusteko aukera bikaina, film aski ezagunean

Heathcliff eta Catherine Earnshawren arteko harreman bizi eta erromantikoa, Yorkshire konderrri ingelesean. Eleberri ezagunaren bertsioa, XXI.mendearen egina, bogan dauden bi aktoreen partaidetzarekin. Horietako bat, gainera, euskal sustraiak dituen Jacob Elordi da. Elkarrekin hazi ondoren, bere amodioa laster zapuzten dute oztopo sozialek, eta bere pasio debekatua izaera erromantikotik intoxikatzailera igarotzen da. Lizunkeria, maitasun eta eromen istorio epikoa.



Lanbide Heziketa Merkataritza Euskaraz

Zure bidea, gure konpromisoa

Gertu Zaude? Gertu Gaudel!

26

15:00
19:00

23

15:00
19:00

16

09:30
13:30

Ate Irekiak
Erreserbatu hitzordua webgunean
www.elizaran.eus

elizaran
LANBIDE HEZIKETA FORMAZION INSTITUTUA

Fp



Urnieta
udala